

2007KO APIRILAREN 27AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA =====	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 27 DE ABRIL DE 2.007. =====
<u>BILDUTAKOAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Iñaki Zarraoa Zabala Jn.

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
----------------------------	------------------------------------

Imanol Landa Jauregi (EAJ-PNV)
José Manuel Etxebarria Gangoiti (EAJ-PNV)
Fernando Burzako Butron (EA)
Iñaki Urkiza Arana (EB-B.)
Guzmán Aranaga Gaztañaga (EAJ-PNV)
Andrés Uriarte Garmendia (EAJ-PNV)

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
---------------------------	--------------------------

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)
Elena Coria Yanguas (EAJ-PNV)
Iñaki Gerediaga Goikolea (EAJ-PNV)
Gorka Uribe Cabello (EAJ-PNV)
José Ramón Bilbao Azkue (EA)
María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)
Jesús Toca Toña (P.P.)
Mercedes Pérez Ducloux (P.P.)
Carlos Aranguren Echevarria (P.P.)
Eduardo Andrade Aurrecochea (P.P.)
Carlos Castellanos Peña (P.P.)
Juan Luis Eguiluz Borde (P.P.)

Rafael Moreno Martín (P.P.)
Raquel González Díez-Andino (P.P.)
Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)
Gotzone Mora Temprano (P.S.E.-E.E.)
Ricardo Villanueva Marcos (P.S.E.-E.E.)
Aitor Lafuente Calderón (E.B.-B.)

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Iñaki Zarraoa Zabala jauna dela, egun horretako goizeko hamarretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Behin-behineko Kontu-hartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna, ere.

Bilera hasi aurretik, Alkate jaunak azaldu du eguneko aztergaien zerrendako puntuak jorratu ondoren, eta Mozioak jorratzen hasi aurretik, Korporazioaren irizpidera jarriko dela aztergaien zerrendan puntu berri bat sartzea.

Ondoren, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Iñaki Zarraoa Zabala, se reunió a las diez horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Angel Corcuera Ruiz.

Previo al inicio de la sesión el Alcalde indica que a la finalización del tratamiento de los puntos administrativos del orden del día, y antes de dar comienzo al tratamiento de las Mociones, se va a someter a consideración de la Corporación la incorporación de un nuevo punto del orden del día.

Seguidamente y visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**65.- 2007KO MARTXOAREN 30EKO
BATZAR ARRUNTEKO ETA
BEREZIKO AKTAK ONESTEA.**

1.- Getxoko Udaleko Udaltzarak 2007ko martxoaren 30eko bilkura arrunteko akta aho batez onetsi da, zuzenketa honekin:

54. erabakian, "Ana María Díaz Montero" dakar baina hau behar du: "Ana María Díaz Montenegro".

2.- Getxoko Udaltzaren argiko Udaltzarak 2007ko martxoaren 30ean egindako osoko bilkura bereziko akta aho batez onetsi da.

**OGASUN, EKONOMIA, GIZA
BALIABIDE ETA KONTUAK**

**66.- ALKATETZA-
UDALBURUTZAREN 1.565/07,
1.568/07 ETA 2.139/07 DEKRETUEN
BERRI EMATEA. BERAIEIEN BIDEZ,
AURREKONTUA ALDATU ZEN,
KREDITUAK GAITUZ.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

**65º.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS
DE LAS ANTERIORES SESIONES
ORDINARIA Y EXTRAORDINARIA
CELEBRADAS EL DÍA 30 DE
MARZO DE 2.007.**

1º.- Se aprobó por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 30 de marzo de 2.007, con la siguiente corrección:

En el acuerdo nº 54, donde dice Ana María Díaz Montero, debe decir "Ana María Díaz Montenegro".

2º.- Se aprobó por unanimidad el Acta de la anterior sesión extraordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 30 de marzo de 2007.

**HACIENDA, ECONOMÍA,
RECURSOS HUMANOS Y CUENTAS**

**66º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS
DECRETOS DE LA ALCALDÍA-
PRESIDENCIA NÚMS. 1.565/07,
1.568/07 Y 2.139/07 DE
MODIFICACIONES PRESUPUESTA-
RIAS MEDIANTE
HABILITACIONES DE CRÉDITO.**

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Kreditua gaituz aurrekontua aldatzeko Alkatetza-Udalburutzak eman dituen dekretu hauen jakitun geratzea:

1.565 Dekretua, 2007-03-14koa, 338,00 €koa.
1.568 Dekretua, 2007-03-14koa, 16.650,88 €koa.
2.139 Dekretua, 2007-04-03koa, 700.000,00 €koa.

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante Habilitación de Crédito:

Decreto nº 1.565, de 14 de marzo de 2007, por un importe de 338,00 €.
Decreto nº 1.568, de 14 de marzo de 2007, por un importe de 16.650,88 €.
Decreto nº 2.139, de 3 de abril de 2007, por un importe de 700.000,00 €.

67.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA, TRANSFERENTZIAK ERABILIZ AURREKONTUA ALDATZEARI BURUZKOAK: 1.551/07, 1.552/07, 1.566/07, 1.567/07, 1.656/07, 1.663/07, 1.666/07, 1.687/07, 1.691/07, 1.970/07, 2.006/07, 2.007/07, 2.121/07, 2.126/07, 2.133/07, 2.136/07, 2.149/07 ETA 2.225/07.

67º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE LA ALCALDÍA-PRESIDENCIA NÚMS. 1.551/07, 1.552/07, 1.566/07, 1.567/07, 1.656/07, 1.663/07, 1.666/07, 1.687/07, 1.691/07, 1.970/07, 2.006/07, 2.007/07, 2.121/07, 2.126/07, 2.133/07, 2.136/07, 2.149/07 Y 2.225/07 SOBRE MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

Transferentzien bidez aurrekontua aldatzeko Alkatetza-Udalburutzak eman dituen dekretu hauen jakitun geratzea:

1.551 Dekretua, 2007-03-14koa, 42.937,23 €koa.
1.552 Dekretua, 2007-03-14koa, 38.000,00 €koa.
1.566 Dekretua, 2007-03-14koa, 1.608,34 €koa.
1.567 Dekretua, 2007-03-14koa, 20.648,00 €koa.
1.656 Dekretua, 2007-03-20koa,

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante el uso de Transferencias:

Decreto nº 1.551, de 14 de marzo de 2007 por un importe de 42.937,23 €.
Decreto nº 1.552, de 14 de marzo de 2007 por un importe de 38.000,00 €.
Decreto nº 1.566, de 14 de marzo de 2007 por un importe de 1.608,34 €.
Decreto nº 1.567, de 14 de marzo de 2007 por un importe de 20.648,00 €.
Decreto nº 1.656, de 20 de marzo de

120.000,00 €koa.			2007 por un importe de 120.000,00 €.
1.663 Dekretua,	2007-03-20koa,		Decreto nº 1.663, de 20 de marzo de 2007 por un importe de 40.000,00 €.
40.000,00 €koa.			
1.666 Dekretua,	2007-03-20koa,		Decreto nº 1.666, de 20 de marzo de 2007 por un importe de 20.000,00 €.
20.000,00 €koa.			
1.687 Dekretua,	2007-03-20koa,		Decreto nº 1.687, de 20 de marzo de 2007 por un importe de 24.259,00 €.
24.259,00 €koa.			
1.691 Dekretua,	2007-03-20koa,		Decreto nº 1.691, de 20 de marzo de 2007 por un importe de 153.000,00 €.
153.000,00 €koa.			
1.970 Dekretua,	2007-04-03koa,		Decreto nº 1.970, de 03 de abril de 2007 por un importe de 23.000,00 €.
23.000,00 €koa.			
2.006 Dekretua,	2007-04-03koa,		Decreto nº 2.006, de 03 de abril de 2007 por un importe de 12.000,00 €.
12.000,00 €koa.			
2.007 Dekretua,	2007-04-03koa,		Decreto nº 2.007, de 03 de abril de 2007 por un importe de 55.000,00 €.
55.000,00 €koa.			
2.121 Dekretua,	2007-04-03koa,		Decreto nº 2.121, de 03 de abril de 2007 por un importe de 900.000,00 €.
900.000,00 €koa.			
2.126 Dekretua,	2007-04-03koa,	761,19	Decreto nº 2.126, de 03 de abril de 2007 por un importe de 761,19 €.
€koa.			
2.133 Dekretua,	2007-04-03koa,		Decreto nº 2.133, de 03 de abril de 2007 por un importe de 702.000,00 €.
702.000,00 €koa.			
2.136 Dekretua,	2007-04-03koa,		Decreto nº 2.136, de 03 de abril de 2007 por un importe de 70.000,00 €.
70.000,00 €koa.			
2.149 Dekretua,	2007-04-04koa,		Decreto nº 2.149, de 04 de abril de 2007 por un importe de 632.560,00 €.
632.560,00 €koa.			
2.225 Dekretua,	2007-04-16koa,	800,00	Decreto nº 2.225, de 16 de abril de 2007 por un importe de 800,00 €.
€koa.			

68.- 2007KO LEHEN HIRUHILEKOKO AURREKONTUAREN BURUTZAPENAREN EGOERAREN BERRI EMATEA.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

2007ko ekitaldiko 1. hiruhilekoko aurrekontuaren burutzapenaren egoeren jakitun geratzea. Egoeren dokumentazioa dagokion espedientean dago.

68º.- DACIÓN DE CUENTA DEL ESTADO DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA DEL PRIMER TRIMESTRE DE 2.007.

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Darse por enterados de los Estados de Ejecución Presupuestaria correspondiente al 1º trimestre del ejercicio 2.007, cuya documentación consta en el expediente de referencia.

**69.- GETXOKO AQUARIUMAREN
BISITALDIEN TASA ARAUTZEN
DUEN ZERGA ORDENANTZAREN
BEHIN-BEHINEKO ONESPENA.**

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, honako emaitza hau izan da: 13 alde (PNV-EAJ, EA eta EB/B) eta 12 abstentzio (PP eta PSE-EE).

Ondorioz, eta Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da gehiengoz:

1.- Behin-behinean onetsiko da orain adieraziko den tasa arautzen duen zerga-ordenantzaren ezarpena, espedienteari erantsi zaizkion testuetako terminoetan. Beraien testuek behin betiko onespena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik aurrera izango dituzte ondorioak, Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15 eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez. Tasa honen ordenantza aldatuko da:

**GETXOKO AQUARIUMERAKO
BISITALDIEN TASA.**

2.- 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau, ukitutako zerga-ordenantzaren arauen idazkuntzarekin batera, jendaurrean erakutsiko da udaletxe honetako iragarki oholean, 30 astegunez, interesatuek espedientea

**69º.- APROBACIÓN PROVISIONAL
DEL ESTABLECIMIENTO DE LA
ORDENANZA FISCAL
REGULADORA DE LA TASA POR
VISITAS AL "AQUARIUM" DE
GETXO.**

Tras darse lectura a la propuesta se somete a votación, obteniendo el siguiente resultado: 13 votos a favor del PNV, EA y EB/B y 12 abstenciones del PP y PSE-EE.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

1º.- Aprobar, con carácter provisional, el establecimiento de la Ordenanza Fiscal Reguladora de la siguiente Tasa, en los términos que se contienen en los textos incorporados al expediente de su razón, cuyos textos surtirán efectos a partir del día siguiente al de la publicación de la aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Bizkaia, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales:

**TASA POR VISITAS AL AQUARIUM
GETXO.**

2º.- De conformidad con lo dispuesto en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005, el presente acuerdo provisional, junto con la redacción de las normas de la Ordenanza Fiscal afectada, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este

aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ahal izateko.

Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

3.- Jendaurrean erakustea BAOan iragarriko da. Iragarkia aipatutako aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea zenbatzen. Gainera, jendaurrean erakusteko iragarkiak argitaratuko dira egunkaririk irakurrietako batean.

3º.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la publicación del correspondiente anuncio en el referido Boletín, publicándose además anuncios de la exposición pública en uno de los diarios de mayor difusión.

70.- "GETXO KIROLAK" TEAean KIROL ETA KULTURAKO JARDUERAK EGITEKO ETA ZERBITZUAK JASOTZEKO TASA ETA UDALAREN JABARI PUBLIKOA OKUPATZEKO TASA ARAUTZEN DITUZTEN ZERGA-ORDENANTZEN ALDAKETA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.

70º.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE LA MODIFICACIÓN DE LAS ORDENANZAS FISCALES REGULADORAS DE LA TASA POR OCUPACIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL, Y DE LA TASA POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS Y CULTURALES EN EL O.A.L. GETXO KIROLAK.

Proposamena irakurri ondoren, Andrade jaunak esan du proposamenak esan nahi duela, Gobernu taldeak, Gobelako Kiroldegian adjudikatu gabe dauden aparkatzeko lekuak merkatuan jartzea erabaki duela. Gogora ekarri du Popular taldeak hiru urte daramala partzela hauek Getxoko biztanleen eskura jartzeko eskatzen, eta orain egindako hau, Popular taldearen proposamenak aplikatzen direnean Getxoko biztanleen onurako dela erakusten duen beste adibide bat da. Bozketan abstenituko direla adierazi du, Popular taldeak

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Andrade para indicar que la propuesta significa que el equipo de Gobierno ha decidido poner en el mercado las plazas de aparcamiento que están en el Polideportivo de Gobela y que no han sido adjudicadas. Recuerda que el grupo Popular lleva tres años solicitando que esas parcelas se pusieran a disposición de los vecinos de Getxo, y esta actuación es un ejemplo más de que, cuando se aplican las propuestas del grupo Popular, se benefician los vecinos de Getxo. Manifiesta que se van a abstener en la

instalazioetako erabiltzaileentzat txandakako parkinga hartzen zuen proposamena aurkeztu zuelako eta, beste aldetik, Tasaren aldaketa ez dela aprobetxatu igerilekuetara sartzeko ordaindu behar den prezioa kentzeko eta Getxo Kirolak Tokiko Erakunde Autonomoaren erabilerako Tasak oro har jaisteko. Amaitzeko gogorarazi du 2006ko ekitaldian tasa eta abonuengatik egindako sarrerak murriztu egin direla.

Proposamena bozkatu ondoren, honako emaitza hau izan da: 13 alde (PNV-EAJ, EA eta EB/B) eta 12 abstentzio (PP eta PSE-EE).

Ondorioz, eta Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da gehiengoaz:

1.- Behin-behinean onetsiko da orain adieraziko diren tasak arautzen dituzten zerga-ordenantzen aldaketa, espedienteari erantsi zaizkion testuetako terminoetan. Beraien testuek behin betiko onespena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik aurrera izango dituzte ondorioak, Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15 eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez. Tasa hauen ordenantza aldatuko da:

UDALAREN JABARI PUBLIKOAK OKUPATZEKO TASA.

“GETXO KIROLAK” TEAean KIROL ETA KULTURAKO JARDUERAK EGITEKO ETA ZERBITZUAK JASOTZEKO TASA.

votación ya que el grupo Popular presentó una propuesta que incorporaba parking rotatorio para los usuarios de las instalaciones y que tampoco se ha aprovechado la modificación de la Tasa para eliminar el pago de la entrada a las piscinas y rebajar en general las Tasas de utilización del Organismo Autónomo Local Getxo Kirolak. Finaliza recordando que en el ejercicio 2006 los ingresos por tasas y abonos se han visto reducidos.

Sometida la propuesta a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PNV, EA y EB/B y 12 abstenciones del PP y PSE-EE.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

1º.- Aprobar, con carácter provisional, la modificación de las Ordenanzas Fiscales Reguladoras de las siguientes Tasas, en los términos que se contienen en los textos incorporados a los expedientes de su razón, cuyos textos surtirán efectos a partir del día siguiente al de la publicación de la aprobación definitiva en el Boletín Oficial de Bizkaia, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales:

TASA POR OCUPACIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL.

TASA POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS Y CULTURALES EN EL O.A.L. GETXO KIROLAK.

2.- 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau, ukitutako zerga-ordenantzen arauen idazkuntzarekin batera, jendaurrean erakutsiko da udaletxe honetako iragarki oholean, 30 astegunez, interesatuek espedienteak aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak egin ahal izateko.

3.- Jendaurrean erakustea BAOan iragarriko da. Iragarkia aipatutako aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da epea zenbatzen. Gainera, jendaurrean erakusteko iragarkiak argitaratuko dira egunkaririk irakurrienetako batean.

2º.- De conformidad con lo dispuesto en el citado art. 16 de la Norma Foral 9/2005, el presente acuerdo provisional, junto con la redacción de las normas de las Ordenanzas Fiscales afectadas, se expondrá al público en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar los expedientes y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

3º.- Dicha exposición al público se anunciará en el B.O.B y comenzará a contar su plazo a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la publicación del correspondiente anuncio en el referido Boletín, publicándose además anuncios de la exposición pública en uno de los diarios de mayor difusión.

71.- SEGEMA, S.L. ENPRESARI DAGOZKION FAKTUREN OBLIGAZIOA ETA ORDAINKETA AITORTZEA.

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, honako emaitza hau izan da: 13 alde (PNV-EAJ, EA eta EB/B) eta 12 abstentzio (PP eta PSE-EE).

Ondorioz, eta Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da gehiengoz:

SEGEMA S.L enpresaren faktura hauen gastuaren obligazioa eta ordainketa aitortzea. Fakturok aipatutako enpresak

71º.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIÓN Y ABONO DE FACTURAS CORRESPONDIENTES A LA MERCANTIL SEGEMA, S.L.

Tras darse lectura a la propuesta se somete a votación, obteniendo el siguiente resultado: 13 votos a favor del PNV, EA y EB/B y 12 abstenciones del PP y PSE-EE.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

Reconocer la obligación del gasto y el pago de las siguientes facturas de SEGEMA S.L, presentadas por la citada

aurkeztu ditu eta bere zenbateko osoa 83.076,32 eurokoa da:

06GJ00431 zenbakidun faktura, 53.579,75 eurokoa.

06GJ00775 zenbakidun faktura, 617,65 eurokoa.

06GJ00435 zenbakidun faktura, 6.906,85 eurokoa

06GJ00436 zenbakidun faktura, 2.766,37 eurokoa.

06GJ00641 zenbakidun faktura, 9.677,15 eurokoa.

06GJ00642 zenbakidun faktura, 5.199,13 eurokoa.

06GJ00639 zenbakidun faktura, 4.329,42 eurokoa

empresa, cuya cuantía total asciende a un total de 83.076,32 €:

Factura nº 06GJ00431, por importe de 53.579,75 €.

Factura nº 06GJ00775, por importe de 617,65 €.

Factura nº 06GJ00435, por importe de 6.906,85€

Factura nº 06GJ00436, por importe de 2.766,37 €.

Factura nº 06GJ00641, por importe de 9.677,15 €.

Factura nº 06GJ00642, por importe de 5.199,13 €.

Factura nº 06GJ00639, por importe de 4.329,42€

72.- UDALAREN 2006KO ABENDUAREN 31KO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN INBENTARIOKO ZUZENKETA ONESTEA.

72º.- APROBACIÓN DE LA RECTIFICACIÓN DEL INVENTARIO MUNICIPAL DE BIENES Y DERECHOS A 31 DE DICIEMBRE DE 2.006.

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, honako emaitza hau izan da: 22 alde (PNV-EAJ, EA, EB/B eta PP) eta 3 abstentzio (PSE-EE).

Tras darse lectura a la propuesta, se somete a votación, con el siguiente resultado: 22 votos a favor del PNV, EA, EB/B y PP y 3 abstenciones del PSE-EE.

Ondorioz, eta Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da gehiengo:

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

LEHENENGOA.- Getxoko Udalaren 2006ko abenduaren 31ko Inbentarioa onestea, erantsitako bolumenetan azaltzen diren terminoetan (I. liburukia, II. liburukia eta III. liburukia). Honela laburbiltzen da:

PRIMERO.- Aprobar Inventario Municipal del Ayuntamiento de Getxo a fecha 31 de diciembre de 2006, en los términos expresados en los volúmenes anexos (Tomo I, Tomo II y Tomo III) y cuyo cuadro resumen es el siguiente:

EPIGRAFEA EPÍGRAFE		ONDASUN KOP NÚMERO DE BIENES	INBETARIOAREN BALIOA* (€) VALOR INVENTARIO* (€)
1	<u>Higiezinak/ Inmuebles</u> <i>Azpiegitura publikoak</i> <i>Infraestructuras Públicas</i>	359 2137	150.085.003,35 28.416.342,51
2	<i>Eskubide errealak</i> <i>Derechos Reales</i>	16	0
3	<i>Altzari historiko-artistikoak</i> <i>Muebles histórico - artísticos</i>	77	2.045.823,00
4	<i>Balio higikorrak</i> <i>Valores mobiliarios</i> <i>Kredituak eta eskubideak</i> <i>Créditos y Derechos</i>	3 85	670.868,22 4.179.372,69
5	<i>Ibilgailuak</i> <i>Vehículos</i>	64	338.310,06
6	<i>Azienda</i> <i>Semovientes</i>	293	0
7	<i>Altzariak</i> <i>Muebles</i>	5958	1.758.941,90
8	<i>Nitxoak</i> <i>Nichos</i> <i>Betselako eskubide errebertigarriak</i> <i>Otros derechos revertibles</i>	6254 468	0 0
GUZTIR A TOTAL		15.714	187.494.661,773

*Eguneratu gabeko balioak / Valores no actualizados

BIGARRENA.- Estatuko administrazioei eta Bizkaiko Foru Aldundiari erabaki honen eta onetsi den inbentarioaren berri ematea.

SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo así como del Inventario que se aprueba a la Administraciones del Estado y a la Diputación Foral de Bizkaia.

HIRUGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari ahalmena emango zaio erabaki hau betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo.

Rafael Moreno irten da bilkuratik.

Sale de la sesión Rafael Moreno.

73.- 2007. URTEKO URTARRILAREN

73°.- DACIÓN DE CUENTA DE LA

**26KO OSOKO BILKURAN HASIERA
BATEAN ONETSITAKO 2007.
URTEKO AURREKONTUKO
PLANTILLAREN ALDAKETAREN
BEHIN BETIKO ONESPENAREN
BERRI EMATEA.**

**APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA
MODIFICACIÓN DE LA
PLANTILLA PRESUPUESTARIA
AÑO 2007 APROBADA
INICIALMENTE EN SESIÓN
PLENARIA DE 26.01.07.**

Proposamena irakurri ondoren Andrade jaunak esan du proposamenak Gobernu taldeak lan arloan egindako kudeaketa txarra islatzen duela. Gogora ekarri du Popular taldeak ez zuela Plantilla Organikoa ez Lan Postuen Zerrenda onetsi, dokumentu hauek adostu ez zirelako, ez oposizioarekin ez eta sindikatuen ordezkariarekin ere. Bere iritziz dokumentu hauek ez dira egokienak eta onetsi eta ondoko hilabetean Gobernu Taldeak beraiek aldatzen hasteak hori frogatu egiten duela azaldu du. Udal langileei buruz aurkezten diren proposamenek kudeaketa txarra erakusten dutela adierazi du, aurkeztu ere aurrekontu zuzkidurak eta behar ziren txostenak eta abar jarri ez zirelako aurkeztu behar dira-eta. Aldakuntzek lanpostu zehatz batzuen balorazioari eragitea ere kritikatu du, Popular taldearen iritziz Udalaren lanpostu guztien balorazioa behar den bitartean. Gobernu taldeak Langileen alorrean daraman kudeaketa txarra nabarmendu du berrito, eta hori komunikabideetan, 2003 ekitaldiko Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenean, hitzarmen kolektiboen inposizioan, langile sektore batzuekin liskar amaigabeetan eta abarretan etengabe islatzen dela azaldu du.

Amaitu duenean, eta

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Andrade para manifestar que la propuesta refleja la mala gestión en materia laboral del equipo de Gobierno. Recuerda que el grupo Popular no aprobó ni la Plantilla Orgánica ni la Relación de Puestos de Trabajo, ya que estos documentos no fueron consensuados ni con la oposición ni con la representación Sindical. Estima que esos documentos no son los adecuados y prueba de ello es que el equipo de Gobierno al mes siguiente de aprobarlos inició la modificación de los mismos. Manifiesta que las propuestas que se presentan sobre la plantilla evidencian una mala gestión ya que han de presentarse porque se obviaron dotaciones presupuestarias e informes preceptivos, etc. Además critica que las modificaciones afecten a la valoración de unos concretos puestos de trabajo, mientras que el grupo Popular estima necesaria una valoración de todos los puestos de trabajo del Ayuntamiento. Insiste en la mala gestión en materia de Personal que mantiene el equipo de Gobierno y que se refleja de manera constante en los medios de comunicación, en el informe del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas del ejercicio 2003, en la imposición de los Convenios Colectivos, continuos conflictos con diversos sectores de empleados, etc.

Finalizada la intervención, y,

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da:

1.- 2007. urteko urtarrilaren 26an egindako bilkuran Udalaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez hasiera batean onetsitako 2007. urteko Aurrekontuko Plantillaren aldaketa behin betiko onespeneraren jakitun gelditzea.

2.- Bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

74.- 2007. URTEKO OTSAILAREN 23KO OSOKO BILKURAN HASIERA BATEAN ONETSITAKO 2007. URTEKO AURREKONTUKO PLANTILLAREN ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONESPENAREN BERRI EMATEA.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da:

1.- 2007. urteko otsailaren 23an egindako bilkuran Udalaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez hasiera batean onetsitako 2007. urteko Aurrekontuko Plantillaren aldaketa behin betiko onespeneraren jakitun gelditzea.

2.- Bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

75.- 2007. URTEKO ORGANIKAKO PLANTILLAREN ALDAKETAREN

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

1º.- Quedar enterados de la aprobación definitiva de la modificación de la Plantilla Presupuestaria año 2007, inicialmente aprobada por acuerdo del Ayuntamiento Pleno adoptado en sesión celebrada el día 26 de enero de 2007.

2º.- Disponer la publicación íntegra de su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia.

74º.- DACIÓN DE CUENTA DE LA APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN DE LA PLANTILLA PRESUPUESTARIA AÑO 2007 APROBADA INICIALMENTE EN SESIÓN PLENARIA DE 23.02.07.

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

1º.- Quedar enterados de la aprobación definitiva de la modificación de la Plantilla Presupuestaria año 2007, inicialmente aprobada por acuerdo del Ayuntamiento Pleno adoptado en sesión celebrada el día 23 de febrero de 2007.

2º.- Disponer la publicación íntegra de su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia.

75º.- DACIÓN DE CUENTA DE LA APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA

**BEHIN BETIKO ONESPENAREN
BERRI EMATEA.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da:

1.- 2007. urteko urtarrilaren 26an egindako bilkuran Udalaren Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez hasiera batean onetsitako 2007. urteko Plantilla Organikoaren aldaketa behin betiko onespeneren jakitun gelditzea.

2.- Bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin xedatzea.

**MODIFICACIÓN DE LA
PLANTILLA ORGÁNICA 2007.**

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

1º.- Quedar enterados de la aprobación definitiva de la modificación de la Plantilla Orgánica año 2007, inicialmente aprobada por acuerdo del Ayuntamiento Pleno adoptado en sesión celebrada el día 26 de enero de 2007.

2º.- Disponer la publicación íntegra de su texto en el Boletín Oficial de Bizkaia.

**76.- DAIR INGENIEROS, S.L.
ENPRESAREN FAKTURAREN
OBLIGAZIOA ETA ORDAINKETA
AITORTZEA. AIPATUTAKO
FAKTURA GALEAKO ERREPIDEAN
PASEALEKUA, BIDEGORRIA ETA
GALTZADA URBANIZATZEKO
OBREN OBRA
ZUZENDARITZAREN LAGUNTZA
TEKNIKOKO LANEN
GEHIKUNTZARI DAGOKIO (2.
FASEA).**

Proposamena irakurri ondoren Toca jaunak esan du Popular taldeak proposamen horren kontra bozkatuko duela, eta ez egindako lanak ordaindu beharrarekin ados ez dagolako, baizik eta obren egikaritza benetako "txapuza" izan dela, eta horren erantzukizuna Gobernu taldearena dela, obraren zuzendaritzak ere erantzukizun zenbait izan ditzakeen arren. Benetan kaltetuak alde

**76º.- RECONOCIMIENTO DE LA
OBLIGACIÓN Y ABONO DE
FACTURA DE DAIR INGENIEROS,
S.L., CORRESPONDIENTE AL
INCREMENTO DE LOS TRABAJOS
DE ASISTENCIA TÉCNICA DE
DIRECCIÓN DE OBRA DE LAS DE
URBANIZACIÓN DE PASEO,
BIDEGORRI Y CALZADA EN LA
CARRETERA DE LA GALEA (2ª
FASE).**

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Toca para indicar que el grupo Popular va a votar en contra, no porque no esté de acuerdo en que haya que pagar los trabajos realizados, sino porque la ejecución de las obras ha sido una auténtica "chapuza", y que la responsabilidad de ello es del equipo de Gobierno, aunque también pueda tener cierta responsabilidad la dirección de la obra. Manifiesta que los realmente

horretako biztanleak izan direla adierazi du, jasan behar izan duten obra penagarri hori jasan beharrez. Hitzaldia eten egin du berak hitz egiten duenean Alkateak barre egitea kritikatzeko, errespetu falta dela esan du eta horren aurrean ez duela hitz egiten jarraituko.

Proposamena bozkatu ondoren, honako emaitza hau izan da: 13 alde (PNV-EAJ, EA eta EB/B), 8 aurka (PP) eta 3 abstentzio (PSE-EE).

Ondorioz, eta Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da gehiengoz:

9.807,80 euroko D-020/07 zenbakidun fakturaren gastuaren obligazioa eta ordainketa aitortzea DAIR INGENIEROS S.L enpresaren alde. Aipatutako faktura GALEAKO ERREPIDEAN PASEALEKUA, BIDEGORRIA ETA GALTZADA URBANIZATZEKO OBREN Obra Zuzendaritzaren Laguntza Teknikoaren lanen gehikuntzari dagokio (2. fasea).

LEHENDAKARITZA

77.- GETXOKO UDALERRIAN 2007. URTEKO EKITALDIRAKO AUTOTAXIKO BIDAIARIEN HIRIKO GARRAIOAREN ZERBITZU PUBLIKOARI APLIKATU BEHARREKO TARIFEN EGUNERAPENA ONESTE.

perjudicados han sido los vecinos de la zona, con el desastre de obra que han estado padeciendo. Interrumpe su discurso para criticar que el Alcalde sería cuando él interviene, ya que es una falta de respeto y ante esa situación manifiesta que no va a proseguir con la intervención.

Sometida la propuesta a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PNV, EA y EB/B, 8 en contra del PP y 3 abstenciones del PSE-EE.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

Reconocer la obligación del gasto y el pago de la factura número D-020/07 por importe de 9.807,80€ a favor de DAIR INGENIEROS S.L, correspondiente al incremento de trabajos de Asistencia Técnica de Dirección de Obra, en las de URBANIZACIÓN DE PASEO, BIDEGORRI Y CALZADA EN LA CARRETERA DE LA GALEA (2ª FASE).

PRESIDENCIA

77º.- APROBACIÓN DE LA ACTUALIZACIÓN DE LAS TARIFAS APLICABLES AL SERVICIO PÚBLICO DE TRANSPORTE URBANO DE VIAJEROS EN AUTOTAXI PARA EL EJERCICIO 2.007 EN EL MUNICIPIO DE GETXO.

Proposamena irakurri eta bozkatu ondoren, honako emaitza hau izan da: 21 alde (PNV-EAJ, EA, EB/B eta PP) eta 3 abstentzio (PSE-EE).

Tras darse lectura a la propuesta, se somete a votación, con el siguiente resultado: 21 votos a favor del PNV, EA, EB/B y PP y 3 abstenciones del PSE-EE.

Ondorioz, eta Lehendakaritza Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da gehiengoz:

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Presidencia, se acordó por mayoría:

1.- "Getxoko Udalerrian 2007. urterako ekitalditako Auto-Taxiko bidaiarien hiriko garraioaren zerbitzu publikoari aplikatu beharreko tarifen eguneratzea" onestea, KPIri dagokion %2,6a aplikatuta tarifa guztietan.

1.- Aprobar la "Actualización de las Tarifas Aplicables al Servicio Público de Transporte Urbano de Viajeros en Auto-Taxi para el Ejercicio 2007 en el Municipio de Getxo", aplicando el porcentaje del 2,6% correspondiente al IPC, en todas las tarifas.

I.tarifa: Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da 7:00etatik 23:00etara bitartean.

Tarifa I: Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 7:00 y las 23:00 horas.

Gutxieneko pertzepzioa: 4,35 euro.
Egindako km.ko: 0,9279811 €.
Itxarondako orduko: 13,83 euro.

Percepción mínima: 4,35 €.
Km. Recorrido: 0,9279811 €.
Hora espera: 13,83 €.

II. tarifa: Tarifa hau igandeetan eta Autonomia eta Tokiko Araudian finkatutako jaiegunetan, bai eta larunbatetan eguerdiko ordu batetik aurrera eta lanegunetan 23:00etatik 7:00etara bitartean ere, aplikatuko da.

Tarifa II: Esta tarifa será aplicable los domingos y los días festivos fijados en la Normativa Autonómica y Local, así como los sábados a partir de las 13 horas y laborables entre las 23:00 horas y las 7:00 horas.

Gutxieneko pertzepzioa: 4,77 euro.
Egindako km.ko: 1,0264041 €.
Itxarondako orduko: 17,98 euro.

Percepción mínima: 4,77 €.
Km. Recorrido: 1,0264041 €.
Hora espera: 17,98 €.

Bi tarifa hauetarako gutxieneko pertzepzioan jasotako ibilbidea 1.500 metrokoa da.

Para las dos tarifas el recorrido incluido en la percepción mínima es de 1.500 metros.

2.- Espedientearen berri ematea Euskadiko Prezioen Batzordeari, Bilboko Merkataritza Ordezkaritzaren bidez, Industria eta Merkataritza Sailaren 1988. urteko irailaren 21eko

2.- Dar traslado del expediente a la Comisión de Precios de Euskadi, a través de la Delegación de Comercio de Bilbao, a los efectos previstos en la Orden de 21 de septiembre de 1988 del

aginduan aurreikusitako ondorioetarako. Beraren bidez, hiriko eremuan egindako auto-taxien zerbitzuen tarifak berrikusteko espedientera doitu beharreko arauak ezartzen dira.

Departamento de Industria y Comercio, por la que se establecen las Normas a que han de ajustarse los expedientes de revisión de tarifas de servicios de auto-taxis realizados en el ámbito urbano.

Rafael Moreno sartu da bilkurara.

Se incorpora Rafael Moreno.

GIZARTE ZERBITZUAK,
ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA
PLANEAMENDUA

SERVICIOS SOCIALES, VIVIENDA
Y PLANEAMIENTO URBANÍSTICO

78.- GETXOKO HIRI
ANTOLAMENDUKO PLAN
OROKORRAREN ALDAKETA
ZEHATZA HASIERA BATEAN
ONESTEA, ERTZAINETXEAREN
LUR-ZATIRAKO.

78º.- APROBACIÓN INICIAL DE LA
MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL
PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN
URBANA DE GETXO, PARA LA
PARCELA DE LA COMISARÍA DE
LA ERTZAINZA.

Proposamena irakurri ondoren, Almansa jaunak esan du Sozialista taldea Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldakuntzei buruzko puntuetan informazio faltagatik abstenitu egingo dela, informazioa espedientean dagoela onartzen duen arren, informazio bat eskatu zuela, eta Zinegotziak bidaliko ziela agindu baina ez dietela bidali.

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Almansa para indicar que el grupo Socialista se va a abstener en los puntos relativos a modificaciones del Plan General de Ordenación Urbana por la falta de información, ya que, aunque reconoce que la información está en el expediente, solicitó una información que se comprometió el Concejal a remitirles, y que no les ha sido remitida.

Proposamena bozkatu ondoren, honako emaitza hau izan da: 13 alde (PNV-EAJ, EA eta EB/B) eta 12 abstentzio (PP eta PSE-EE).

Sometida la propuesta a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PNV, EA y EB/B y 12 abstenciones del PP y PSE-EE.

Ondorioz, eta Gizarte Zerbitzu, Etxebizitza eta Hiri Plangintza

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Servicios Sociales,

Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da gehiengoz, legezko gehiengo osoaren "quorumaz":

LEHENENGOA.- Hasiera batean onetsiko da Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ertzain etxearen lur-zatirako, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, BARREU ARQUITECTOSEK idatzita. Bertan, herritarrek parte hartzeko proposamena sartzen da. Aldaketa Hirigintzako Arauen 6.3.29 eta 6.3.31 artikuluei dagokie, honela idatziko direnak:

6.3.29 artikulua. Ekipamenduaren erabileraren hedapena eta eraikuntzako baldintzak

1. Erabileren planoan ezarri da zein lurzoru izango dute helburu hori, Sistema Orokor edo Tokiko Sistematzat den edo ez kontuan izan gabe. Ekipamendu erabilerek izaera irekia dute, eta honela, ezarritako erabileraren instalazioa gauzatzeko unean hirigintza-baldintzek berauek aldatzea gomendatzen badute, hau ez da Plan Orokorren aldaketatzat hartuko, erabilera hori ekipamendu erabileren edo hiri-zerbitzuen ekipamendu erabileren barruan mantentzen baldin bada, eta gainera eraikin berean erabilera edo kategoria hauetako bat baino gehiago elkartu ahal izango da.

2. Eraikin batean ekipamendu mota desberdinak daudenean, derrigorrezkoa izango da ezarritako jarduera bakoitzak sarbide independentea izatea. Plan Orokorren behin betiko onespeneren data baino lehen bertan zeuden eraikinentzat baldintza hau ez da derrigorrezkoa izango, baldin eta berau betetzea ezinezkoa dela frogatzen

Vivienda y Planeamiento Urbanístico, se acordó por mayoría, y con el "quorum" de la mayoría absoluta legal:

PRIMERO.- Aprobar, con carácter inicial, la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo para la parcela de la Comisaría de la Ertzaintza, según documentación presentada por el Departamento de Interior del Gobierno Vasco, redactada por BARREU ARQUITECTOS, que incluye propuesta de participación ciudadana, y que afecta a los Arts. 6.3.29 y 6.3.31 de sus Normas Urbanísticas que pasarán a ser redactados en los siguientes términos:

Artículo 6.3.29. Alcance del Uso de Equipamiento y condiciones edificatorias

1. En el plano de usos se especifican los suelos que el Plan destina a tal fin, sin perjuicio de su consideración como Sistema General o Local. Los usos de Equipamiento tienen un carácter abierto de manera que, si las condiciones urbanísticas en el momento de materializar la instalación del uso establecido aconsejaren su alteración, no será considerado modificación del Plan General, si se mantiene el uso dentro de los de Equipamiento o de los de Servicios Urbanos, pudiendo incluso combinarse en el mismo edificio más de uno de estos usos o categorías.

2. En el supuesto de equipamientos combinados en un mismo edificio será obligatorio contar con acceso independiente para cada una de las actividades implantadas. Esta obligatoriedad no será exigible para aquellos edificios existentes con anterioridad a la aprobación definitiva del Plan General en los que se acredite la imposibilidad de su cumplimiento.

badute.

3. Ekipamendu erabilerako lur-zatietan eraikitzeko baldintzak honakoak dira:

- Hirilurrean eta ordenantza aldeetan dauden ekipamenduetarako, antolamendu alde horretako gainerako eraikuntzetarako ezartzen diren berberak. Baldintza hauek eraikin berrietan nahiz eginda dauden eraikinetan aplikatuko dira.

- Hirilurrean dauden baina ordenantza aldeetan sartzen ez diren ekipamenduetarako, ekipamenduetako eraikigarritasuna hurbileko aldeetako ordenantzetara asimilatuko dira, honela ordenatuz:

Ereaga aldean dauden ekipamenduak Basagoiti Aldeko ordenantzaren bidez erregulatuko dira.

Santa Klara Jauregia Neguri aldeko ordenantzaren bidez arautuko da. Ez da ertzainetxea sartzen, planaren 6.3.31 artikuluko 4. atalaren arabera arautuko dena.

Portu Zaharreko betelanaren gaineko orubea, igerileku zaharren gainean, Usategi aldearekin batera arautuko da.

Fadurako kirol instalazioetan, Jolaseta aldeko ordenantza aplikatuko da.

- Lurzoru urbanizaezinean dauden ekipamenduetarako, azpiegitura horiei emandako eraikigarritasuna dagokion jarduera egiteko behar dena izango da.

6.3.31 artikulua. Bertan diren ekipamenduen araubidea

1.- Bertan diren ekipamendu guztiak, erabilerako horretarako diren eraikinetan, eta baita planoetan grafikoki adierazten diren orubeak eta azken erabilerako ekipamenduzkoa izan duten eraikinak euren gainean eusten dituzten

3. Las condiciones de la edificación correspondiente a las parcelas de uso de equipamiento, serán las siguientes:

- Para equipamientos situados en suelo urbano e incluidos en áreas de ordenanza serán las mismas que se fijen para el resto de las edificaciones incluidas en el área de ordenación en la que se encuentre. Estas condiciones serán de aplicación tanto para los edificios de nueva construcción como para los ya existentes.

- Para equipamientos situados en suelo urbano pero no incluidos en áreas de ordenanza, la edificabilidad de dichos equipamientos se asimilará a las ordenanzas de áreas próximas, ordenándose del siguiente modo:

Los equipamientos situados en la zona de Ereaga se regularán con la ordenanza del área de Basagoiti.

El palacio de Santa Clara se regulará con la ordenanza del área de Neguri. No se incluye la Comisaría de la Ertzaintza, la cual se regulará por el apartado 4º del Art. 6.3.31 del Plan.

El solar sobre el relleno en el Puerto Viejo sobre las antiguas piscinas se regulará con el área de Usategi.

Las instalaciones deportivas de Fadura se aplicará la ordenanza prevista para el área de Jolaseta.

- Para equipamientos situados en suelo no urbanizable, la edificabilidad asignada a estas infraestructuras será la necesaria para el desarrollo de la actividad de la que se trate.

Artículo 6.3.31. Régimen de los equipamientos existentes

1.- Todos los equipamientos existentes, en los edificios destinados a tal uso, así como los solares señalados gráficamente en los planos y los suelos que sustentan edificios cuyo último uso corresponde al uso equipamental,

lurzoruak ere, Ekipamenduzko erabilerara lotarazita daude.

2.- Plan honek baimendu gabeko beste erabilerak ere dituzten ekipamenduetarako diren bertako eraikinak antolaketaren barruan kontsideratzen dira erabileraren aldaketa bat gertatu edo eraikina ordeztu egin arte. Edozein kasutan, dauden erabilerak betikotzeko obramota guztiak egin ahalko dira, beraien bidez erabilera baimendu ezinetarako den azalera gehitzen ez baldin bada.

3.- Getxoko Kirol Porturako araubide berezia:

Ekipamendu honetan erabilera hauek aplikatuko dira, ondoko intentsitateekin:

- a) Kapitaintza: 600 m²
- b) Komertziala-terziarioa: 7.600 m²
- c) Biltegiak: 800 m²
- d) Tailerrak-Lehorreko marina: 3.900 m²
- e) Bela arina eta arrauna: 2.000 m²

4.- Ertzain etxearen araubide berezia:

Gutxieneko orubea: Dagoen lur-zatia
Eraikuntzaren gehieneko altuera:
Solairu bat, gehienez 5 metroko altuerarekin.

Mugakideekiko eta bideekiko bereizketa: 4 metro.

Sestra gainean eraikitako gehienezko azalera: 1.500 m².

Sestra azpian, poliziaren ekipamenduaren beharriari eta jardueri lotutako erabilerak baimentzen dira.

Barne patioak baimentzen dira, sestra azpiko aldean bizigaitasunerako, planaren 7.3.5 artikulua zehaztapenak bete behar dituztenak.

Lur-zatiari emango zaion erabilera dela-eta, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 7.4.2.4 artikulua betetzeko exijentzia c) atalari bakarrik aplikatuko

quedan vinculados al uso de Equipamiento.

2.- Los edificios existentes destinados a equipamientos que contuvieran además otros usos no autorizados por este Plan, se consideran dentro de ordenación hasta tanto se produzca un cambio de uso o se proceda a la sustitución del edificio. En cualquier caso, podrán ser objeto de todo tipo de obras de perpetuación de los usos existentes en tanto que con ellas no se incremente la superficie destinada a los usos no autorizables.

3.- Régimen particular para el Puerto Deportivo de Getxo:

Los usos y sus intensidades aplicables en este equipamiento serán los siguientes:

- a) Capitanía: 600 m²
- b) Comercial-Terciario: 7.600 m²
- c) Pañoles: 800 m²
- d) Talleres-Marina seca: 3.900 m²

e) Vela ligera y remo: 2.000 m²

4.- Régimen particular para la comisaría de la Ertzaintza:

Solar mínimo: Parcela existente
Altura máxima de la edificación: 1 planta de 5 metros de altura máxima.

Separación a colindantes y viales: 4 metros

Superficie construida máxima sobre rasante: 1.500 m².

Se permiten bajo rasante usos vinculados a las actividades y necesidades del equipamiento policial.

Se permiten patios interiores para la habitabilidad de las áreas bajo rasante, los cuales cumplirán las determinaciones del Art. 7.3.5 del Plan. Por razón del uso que se le asigna a la parcela, la exigencia de cumplimiento del Art. 7.4.2.4 de las Normas Urbanísticas del Plan General, será

zaio.

Era berean, dokumentazio grafikoan (6-3 plano) handitu beharreko zonako sestra gaineko eraikuntza ingurunea edo gehieneko lerroakadurak islatzen dira.

